



Robotika tailerrak (2022-01)

Eibarko Udalak programazioan inguruko tailer teknologikoa antolatu du zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko.

Tramitatzailea: Eibarko Udaleko Kultura saila, Haurreria eta Gazteria.

Nork emango du: Doplay.

Hartzaileak:

- LH 3. eta 4. mailakoentzat.
- LH 5., 6. Mailakoentzat eta DBH 1., eta 2.

Non:

LH 3. eta 4.: **Jazinto Olabeko ludotekan**

LH 5, 6 eta DBH 1, 2: **Indianokua gaztelekuan**

Taldeak, datak, ordutegiak:

SMART CITY. Lego Spike Prime eta Lego Mindstorms EV3: LH 3. ETA 4. MAILAKOENTZAT

- **1 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Ordutegia: 10:30etatik 12:00etara.
- **2 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Ordutegia: 12:30etatik 14:00etara.
- **3 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Ordutegia: 10:30etatik 12:00etara.
- **4 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Ordutegia: 12:30etatik 14:00etara.

SMART CITY. Lego Mindstorms EV3 eta Micro:bit: LH 5., 6. MAILAKOENTZAT eta DBH 1. eta 2. mailakoentzat

- **1 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Ordutegia: 10:30etatik 12:00etara.
- **2 txanda:** apirilak 11, 12 eta 13. Ordutegia: 12:30etatik 14:00etara.
- **3 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Ordutegia: 10:30etatik 12:00etara.
- **4 txanda:** apirilak 19, 20, 21 eta 22. Ordutegia: 12:30etatik 14:00etara.

Ikastaroaren prezioa:

- Txanda apirilak 11-13
9€ Eibarren erroldatuentzat
18€ Eibartik kanpokoentzat
- Txanda apirilak 19-22
12€ Eibarren erroldatuentzat
24€ Eibartik kanpokoentzat

Ikastaroaren ordainketa: Ikasleei matrikularen zenbatekoa ordainketa bakar batean kobratuko zaie, erreziboa helbideratuta.

Ikasle kopurua: txanda bakoitzean, gutxienez 5 haur, gehienez 12 haur.

Tailerren hizkuntza: euskaraz



Aurrematrikula: ikastaroan izena emateko aurrematrikula egin beharko da **martxoaren 25etik apirilaren 4ra (biak barne)**. Aurrematrikula egiteko **formulario bat bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:**

<https://formularioak.eibar.eus/eu/robotika2022-01>

Kudeaketa arauak:

Aurrematrikula egiteko epea amaitzerakoan behin-behineko zerrendak lortuko dira eta taldeen kudeaketa burutuko da.

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **2022ko apirilaren 6an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2022ko apirilaren 6an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik tailer eta txanda bakoitzean izena eman duten pertsona guztiekin zerrendak egiten dira alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrendak egingo dira. Zerrenda horiek PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus), egongo dira **2022ko apirilaren 6an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda horiek argitara ematen diren unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Aurre-inskripzioen onarpenaren abisua jaso ondoren, behin betiko inskripzioa egin behar da, ondoren adierazten den dokumentazioa tailerra burutuko den lehen egunean aurkeztuz:

- Robotika tailerretan izena emateko inprimakia behar bezala beteta eta tailerrera joango den adingabearen aita, amak edo tutoreak sinatuta.
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Oharrak: txanda batean izena emandakoen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste adin tarte berdineko beste txanda batean izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko txanda beste taldeko ikasleez osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan.